

BAZTANGO INDARKERIA MATXISTAREN ETA ARRETA ZERBITZUEN INGURUKO DIAGNOSTIKOA

Rol eta estereotipoetan oinarritzen diren genero-desberdinkerien baitan antolaturiko egungo jendarte honetan, emazteki, neskato, haur edota sexu-genero disidenteen eskubideak sistematikoki urratzen dira. Indarkeria matxista bereizkeria horien adierazpen gordinena da eta, era berean, desparekotasun horiek iraunarazteko mekanismo gisa jarduten du. Indarkeriarik gabeko bizitzak aldarrikatzearekin batera, ezinbertzean, honi aurre egin eta erantzuna hobetzeko neurriak hartu behar dira. Zeregin horri ekin zion 2022.urtean Baztango Udaleko Berdintasun Zerbitzuak bertze hainbat elkarte, erakunde eta herritarrekin batera, indarkeria matxistari Baztanen ematen zaion erantzuna hobetzeko bide berriak marraztuz.

Horretarako ezinbertzekoa da, egun udalerrian indarkeria matxistaren inguruan dagoen errealtatea aztertzea. Hortaz, *Baztango Indarkeria Matxistaren eta Arreta Zerbitzuen Inguruko Diagnostikoa* (2022) osatu du Berdintasun Zerbitzuak, Emagin Elkartearekin batera. Azterlanean bi ardatz bereizten dira: batetik, emaztekien kontrako indarkeriaren eragina udalerrian, eta, bertzetik, indarkeria egoeran biziraun duten emaztekien arreta-zerbitzuen inguruko balorazioa.

Indarkeria matxistaren eragina Baztango udalerrian

Azken hamarkadako salaketa datuen arabera, 2011tik 2021era, emaztekien kontrako 61 indarkeria kasu salatu dira Baztanen. Salaketa kopuruetan aldaketa handirik izan ez bada ere, 2020 urtekoak dira horietako 10. Hain zuzen ere, Covid-19ak eragindako pandemiaren baitan ezarritako neurriek herritarrak etxeetan konfinatuta egon beharrak ezaugarritu zuen urtea izan baitzen. Alta, salaketa kopuruak ez du inolaz ere indarkeriaren eragin erreala adierazten, soilik zuzeneko indarkeria kasuen %20 inguru salatzen dela estimatzen baita.

Indarkeria matxista kasuak ez salatzeko dauden arrazoiak anitzak dira. Bertzeak bertze, emaztekien kontrako indarkeria (aurrerantzean EKI) egoerak bizi dituztenek jakin badakite, prozedura judizialak oztopoz beteriko bideak izan ohi direla emaztekiendako eta, zenbaitetan, biktimizazio bikoitza eragiten dietela. Gainera, salaketa paratu ahal izateko, bertzelako lehentasun batzuei erantzuna ematea ezinbertzekoa da, hots, oinarrizko bizi baldintza materialak bermatzea. Bikote barneko indarkeria kasuetan erasotzailerekiko harremana ez eteteko pisuzko arrazoa izan ohi da mendekotasun ekonomikoa .

Indarkeria-egoeran bizirautea: bide arantzatsuan aurrera

Jendarte heteropatriarkal honek zapaltzen dituen subjektuen kontrako indarkeria salatzen duten ahotsak ozen aditu dira hondarreko urteetan gure jendartean. Borroka feministak ikusgarri egin du indarkeriaren egiturazko izaera eta indarkeria matxistei erantzuteko urratsak eman dira aitzinera. Alta, indarkeria matxistaren jo-puntuak dauden subjektuen ongizatea eta berrosatzea bermatzetik urrun gaudela adierazten dute datu eta testigantzek.

Baztanen jaso dugun errealitateari dagokionez, deigarria da artatze zerbitzuetara etortzen den emaztekien kopuru baxua. Emaztekien kontrako indarkeria kasuetan berriazko Foru baliabideek ere berretsi duten egitatea izan da. Indarkeria matxistak eskualde ezberdinetan pareko eragina duela jakinik, indarkeriaren bizipenaren aitzinean laguntza eskatu edota salatzeko udalerrian oztopo nabariak dituzte emaztekiek. Bada, emaztekien kontrako indarkeria Baztanen ezkutuan dago, neurri batean.

Errealitate hori baldintzatzen duten faktoreak arakatzeko ahalegina egin da diagnostikoan. Batetik, agerikoa da arreta zuzenaz arduratzen diren zerbitzuetako profesionalen formazio zehatzaren beharra. Emaztekien kontrako indarkeria gai konplexua da eta ezinbertzekoa da berriazko formazioa jarduketa egokia, arreta integrala eta kalitatezkoa eskaini ahal izateko. Indarkeria egoerak bizi dituztenen eskubideak bermatzeko ezinbertzekoa da eskubide horiek ezagutzea eta emaztekiek horien inguruan informatu eta egiazki betetzen direla bermatzea. Ere honetan dauden hutsuneak jaso dira, bai ere ezberdinetan diharduten baliabideetako arduradunen ahotan, zein emaztekien testigantzetan.

Bertzetik, indarkeria egoeran dauden emaztekien lekukotzek, begirada komunitatean jartzera garamatzate. Landa eremuak baditu bere berezitasunak emaztekien kontrako indarkeriari ematen zaion erantzunean, eta norabide bikoitzeko aldaerak ditu hiriguneekin alderatuta: alde batetik, gertuko harremanek, babes sare sozial indartsuagoa eskaintzen dute, hiriguneetako bizimoduetan izan ohi den isolamendu maila handiagoarekin alderatuz. Bertzetik, herri txikietan zurrumurruek, epaiaren eta bazterkeriaren eraginez, komunitatea bera ere indarkeria bikoitzaren eragile izan liteke, babesgune beharrean. Hain zuzen ere, lekukotza eskaini duten emazteki gehienek kasuan azken hori izan da bizitakoa, bazterkeria egoerak pairatu dituzte haien bizipenak salatu nahi izateagatik.

Indarkeriarik gabeko bizitzak helburu: osoko arreta espezializatua eta herritarren sentsibilizazioa

Indarkeria matxistaren aitzinean bizirauteko estrategia desberdin aunitz darabiltzate emaztekiek eta, beraz, haiek dira berrosatze prozesuetan protagonistak. Esku-

hartzeko orduan bizirik atera diren emaztekien ahalduntzea sustatzea izan behar da erdigunean. Horretarako, ezinbertzean, artatzen duten tokiko profesionalak ere indarkeria egoeretan dauden emaztekien beharrei erantzuteko prozedura guztiaren inguruko formazioa izan behar dute, hala nola, hautematea, lehen arreta, jarraipena, eta balorazioa. Honekin batera, emaztekien eta adin txikikoen eskubideak bermatzeko, eskuragarri dauden berriazko baliabideen inguruko informazio zabala izatea eta zerbitzuetarako biktimen irisgarritasuna bermatu behar dira. Halaber, erakundeetan emaztekiek duten ibilbidean birbiktimizazioa edo indarkeria bikoitza saihesteko eragileen arteko koordinazioa eta komunikazioa sistematizatzea ere erabakigarria da.

Azkenik, ezin dugu ahaztu, egiturazko errealitatea den indarkeria matxista, generoaren araberrako bereizkeria oinarri duen jendarteak ahalbidetzen duela. Eta,aldi berean, indarkeria hori da gizon eta emakumeen arteko harreman desorekatuak betikotzeko ongarrria. Emaztekien kontrako indarkeriarik gabeko bizitzak helburu, komunitatean egiten den lanketa eta indarkeriaren aitzinean ematen den erantzuna ezinbertzeko bidea da. Hortaz, herritarrekin sakoneko sentsibilizazio lana eta herri eragile ororekin elkarlana giltzarri izanen dira, guztion artean, indarkeria matxistarik gabeko bizitzak aldarrikatzeko eta emaztekiek indarkeria egoeretatik ateratzeko bideak zabaltzeko.

Hutsune horiei guztiei heltzeko asmoarekin, 2022. urtean bi prozesu abiatu dira Baztango udalerrian. Horren emaitza izan da, batetik, **udala eta herri eragileen artean indarkeria matxistaren aitzinean erantzun sozial bateratua emateko protokoloa**; eta, bertzetik, **indarkeria kasuetan arreta zuzenaz arduratzen diren erakundeen arteko koordinazio protokoloa**. Tresna horiek eskuan, Baztango udalerriko ordezkari, profesional, eragile eta herritar orori indarkeria matxistaren aitzinean (elkar)lanean segitzea dagokigu.